



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainak 22

Vitoria-Gasteiz, 22 de junio de 2010

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Agindua, Batxilergoko aparteko sariak dei egiten dituen.

Agindua, 2009/2010 ikasturteko hezkuntza berriztapenerako Karmele Alzueta Sarirako dei egiten duena.

Agindua: horien bidez, Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxe baimenduei diru-laguntzak emateko deia egiten da.

Erabakia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden herri-ikastetxe batzuetarako garbiketa egiteko (2010/11 eta 2011/12 ikasturteak), 5.000.000 eurotik gorako gastua duen kontratuaren luzapena baimentzeko dena.

Erabakia: Donostian (Gipuzkoa), IES Usandizaga-Peñaflorida BHI de Donostia-San Sebastián ikastetxe berria eraiki eta lehengoa eraisteko lanentzako 5.000.000 de eurotik gorako gastu-kontratua baimentzeko dena.

Agindua, 2010-2011 ikasturtean unibertsitate eta goi-mailako ikasketak egiteko beketarako deia egiten duena, izaera orokorreko beketarako, eguneroko garraio-gastuak ordaintzeko eta minusbailotasunen bat duten ikasleak garraiatzeko diru-laguntzarako, hain zuzen.

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Erabakia: Abadiñoko Udalarekin lankidetzaren hitzarmen bat izenpetzeko baimena emateko dena. Helburua: babes ofizialeko 69 etxebizitzaren sustapenean, Etxebideko Etxebizitza Eskabideen Erregistroa erabiltzea.

Erabakia, Bilboko Udalarekin eta Bilboko Udal Etxebizitzen erakunde autonomoarekin lankidetzaren hitzarmen bat izenpetzeko baimena emateko dena. Helburua: babes ofizialeko sustapenen esleipendunak hautatzeko prozedura kudeatzea.

Erabakia: Hernaniko Udalarekin lankidetzaren hitzarmen bat izenpetzeko baimena emateko dena. Helburua: babes ofizialeko zenbait etxebizitza-sustapenetan, Etxebideko Etxebizitza Eskabideen Erregistroa erabiltzea.

Erabakia: Abadiñoko Udalak erabakitako lagapen doako bat baimentzeko dena. Lagapen horretaz zehaztasunak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldekoa; SR3- lur-zatiarena; izan ere, UR 8 Gantza-Zelaieta Sektorean, babes ofizialeko 26 etxebizitza eraikitze lagatzen baita lur-zati hori.

KULTURA SAILA

Dekretua: kirol klubena eta kirol elkarteena.

Agindua, gidoien sorkuntzarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

BATXILERGOKO APARTEKO SARIAK

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren proposamenez, Batxilergoko aparteko sariak deitzen dituen agindua onartu du.

Batxilergoko edozein modalitatetako bi kurtsuak (1.a eta 2.a) 2009/10ko ikasturtean bukatu eta gainditu dituzten ikasleek jaso ahal izango dituzte sari horiek, bi kurtsuetan lortutako kalifikazioen batezbestekoa 8,75 puntu edo 8,75 puntu baino gehiagokoa baldin bada.

Aparteko saria lortzen duten ikasleek parte hartzeko eskubidea izango dute beraientzat espreski antolatzen den bidaien programan, 2011ko udan aleman, frantses edo ingeleseko ikastaroak atzerrian egiteko.

Beste alde batetik, 15 saridunen artean 14.037 euro, kopuru berdinean, banatuko dira.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

KARMELE ALZUETA SARIA

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bilkuran onartu du 2009/2010 ikasturteko hezkuntza berriztapenerako Karmele Alzueta Sarirako dei egiten duen agindua.

15.000 euroko kopurua duen sari honen helburua hezkuntza berriztapenerako proiektuak bultzatzea da, eta irakaskuntzako jardunetan kalitate handiagoa lortzen lagun dezaketen bideak sendotzea, bai ikasgelako eguneroko lanean, bai antolamenduari buruzko kontuetan eta bai Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen arteko koordinazio pedagogikoan.

Horrez gain, Ohorezko Aipamen bi ere eman litezke, kalitate handikotzat jotzen diren proiektu bakoitzari 1.500 euroekin saritzeko asmoz. Lehenengoa Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailentzat zuzenduta izango da eta bigarrena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide-hastapen eta Batxilergo mailentzat.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

134.506 EURO ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IKASTETXEETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran agindu bat onartu du. Agindu horien bidez, Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxe baimenduei diru-laguntzak emateko deia egiten da.

Agindu honek, 134.506 euroko zenbateko globala hartzen duena, araubide bereziko irakaskuntzen barruko Arte Platikoetako eta Diseinuko ikastetxe baimenduentsako laguntza ekonomikoak ematea du helburu, betiere, 2008-2009 ikasturtean diru-laguntzarik ez badute jaso Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saitetik.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

37,239 MILIOI EURO IKASTETXEAK GARBITZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren proposamenez, 37,239 milioi euro gastatzeko baimena eman du 2010/2011ko ikasturterako eta 2011/2012ko ikasturterako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxe publikoak garbitzeko kontratua luzatzeari dagozkionak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

10,9 MILIOI EURO USANDIZAGA-PEÑA FLORIDA BHI BERRIRAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, hartu du 10,9 milioi euroko kontratu bat baimentzeko erabakia, gaurko eraikina eraisteko eta Donostiako Usandizaga-Peñaflorida BHIIn beste ikastetxe bat eraikitzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

25,415 MILIOI EURO UNIBERTSITATE-BEKETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran agindu bat onartu du. 2010-2011 ikasturtean unibertsitate eta goi-mailako ikasketak egiteko beketarako deia egiten duena, izaera orokorreko beketarako, eguneroko garraio-gastuak ordaintzeko eta minusbailotasunen bat duten ikasleak garraiatzeko diru-laguntzarako, hain zuzen.

Beken deialdi hau, 25,415 milioi euroko zenbateko globalean, Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza duten ikasleentzat da, 2010/2011 ikasturtean Autonomia Erkidego honetan edo Estatuaren gainontzeko tokietan kokatuta dagoen edozein tokitan ondorengo ikasketak egin behar badituzte:

Graduko unibertsitate-titulu ofiziala, unibertsitate-masterraren titulu ofiziala eta unibertsitate-diplomatuaren, arkitekto teknikoaren, ingeniari teknikoaren, lizentziatuaren, arkitektoaren eta ingeniariaren titulu ofizialak lortzera bideratuak; egokitzapen-ikastaroak eta unibertsitate-ikasketen bigarren ziklo batera iristeko behar diren prestakuntza-osagarriak; 25 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko unibertsitate publiko ez presentzialek ematen duten prestakuntza-ikastaroa; goi mailako arte-irakaskuntzak eta akademikoki unibertsitate-lizentziatuaren edo diplomatuaren baliokideak diren titulu ofizialak lortzera bideratutako goi mailako beste ikasketa batzuk.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

JAURLARITZAK HITZARMENAK EGINGO DITU ABADIÑO, ELGOIBAR, HERNANI ETA BILBOKO UDALEKIN ETXEBIDE ERABILTZEKO

Etxebizitza Sailak hainbat udalekin egindako hitzarmenei baiezkoa eman die Jaurlaritzaren Kontseiluak; hitzarmen horiei esker, udalek esleipendunak hautatzeko prozesua kudeatuko dute ETXEBIDEREen etxebizitza-eskatzailen Erregistroa erabilia, herritarrentzat errazagoa izan dadin baliabide instituzionalak baliatzea eta, etxebizitzari dagokionez, zerbitzuak emateko garaian disfuntzioak eta bikoizteak saihestearren.

Hori horrela izanik, Abadiñoko Udalak babes ofizialeko 55 eta 14 etxebizitzako bi sustapenen esleipendunak hautatzeko prozedura kudeatuko du.

Elgoibarko Udalak babes ofizialeko 71 etxebizitzako sustapenaren esleipendunak hautatzeko prozesua kudeatuko du.

Hernaniko Udalak babes ofizialeko etxebizitzen hainbat sustapenen esleipendunak hautatzeko prozesua kudeatuko du.

Bilbon, Bilboko Udal Etxebizitzak erakundearen, Udalaren eta Sailaren artean sinatuko dute hitzarmena.

2004. urteko apirilean, lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Bilboko etxebizitza-eskatzailen datu-base bakar bat sortzeko eta etxebizitzak esleitzeko prozesuak homogeneizatzeko. Aurrerago, urte hartako irailean, Sailak, Bilboko Udalak eta Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeak beste hitzarmen bat sinatu zuten Etxebide-Etxebizitzen Euskal Zerbitzuan izena eman zuten eskatzailen datuak Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeari lagatzeko, bigarren eta ondorengo okupazioko etxebizitzak esleitze aldera.

Aldiz, hitzarmen honen xedea da aurreko hitzarmenak bateratzea eta eguneratzea.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

JAURLARITZAK 26 ETXEBIZITZA BABESTU ERAIKIKO DITU ABADIÑON

Jaurlaritzaren Kontseiluak titulartasunaren doako lagapena adostu zuen Abadiñoko Udalarekin, Abadiñoko UR 8 Gaintza-Zelaieta sektorean babes ofizialeko 26 etxebizitza eraikitzeko lurzati bat (SR3) Jaurlaritzari lagatzeko; orain, Jaurlaritzak baiezkoa eman dio lagapen horri.

Lagatako lurzatiak 1.619 m²-ko azalera du eta bertan 26 etxebizitza eta 659 m²-ko gizarte-ekipamendua eraikiko dira.

Kultura Saila

KIROL-KLUBEI ETA KIROL-ELKARTEEI BURUZKO DEKRETUA ONARTU DA

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Kulturako sailburuaren proposamenari jarraiki, Euskadin helbideratutako kirol-kluben eta kirol-elkarteen araubidea ezartzeko Dekretua onartu du. Xedapen horren bitartez, batetik, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean diseinatutako kirol-elkarteetarako eredu berria garatu nahi da, eta, bestetik, orain artean indarrean egon den Dekretuaren aplikazioaren haritik etorri diren arazo guztiei erantzun egokia eman nahi zaie.

Kirol-klubtzat jotzen dira elkarte pribatuak, nortasun juridikoa izaki irabazi-asmorik ez dutenak, pertsona fisiko edo juridikoek osatuak, eta kirol modalitate bat edo batzuk sustatzeko eta horietan jarduteko sortutakoak, kirol-lehiaketetan parte hartu edo ez. Kirol-elkarteak, berriz, erakunde publiko edo pribatuen baitan sorturiko atalak dira, kirol modalitate bat edo batzuk sustatzeko eta horietan jarduteko xedearekin sortuak, kirol-lehiaketetan parte hartu edo ez.

Dekretuak, garrantzizko beste zenbait gauza berriekin batera, kirol-erakundeen erregulazioaren sinplifikazioa ekarri du berekin, eta, horren ondorioz, kirol-erakundeen araubide juridikoa elkarten araubide orokorraren oinarriaren gainean eratu da. Hala, Dekretu honetan erregulatutako kirol-elkarteak Dekretuaren arauen eta Euskadiko Kirolaren Legea garatzen duten gainerako xedapenen arabera arautuko dira, eratzearekin, antolatzearekin, jardutearekin, iraungitzearekin eta antzeko gaiekin zerikusia duten gai guztietan. Kirol-xedapen horietan esanbidez jaso ez diren guztietan, erakunde horiek elkarten araudi orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko dira. Gainera, araubide organikoari dagokionez, beren estatutu eta erregelamenduak aplikatuko zaizkie lehenetsunez, eskumeneko organoek behar bezala onartu ondoren.

Dekretuak guztiz errespetatu nahi du kirol-kluben elkarte-izaera pribatua, eta horri jarraiki, aurreko arauan sakabanaturik ageri diren zenbait atal interbentzionista ezabatu ditu, justifikaziorik ez duten neurrian. Atal interbentzionista horiek mugatu egiten zuten konstituzioaren elkartzeko eskubidea, eta gainera, azken batean, lehen mailako kirol-elkarteen izaera guztiz pribatua desnaturalizatu dute neurri batean.

Bestetik, nortasun juridikoa duten kirol-kluben eta kirol-elkarteen arteko artifizio handiko bereizketa ez da xedapen berrira bildu, orain artean zenbait arazo sortu dituela aintzat hartuta. Lehiaketa ofizialetan ohiko parte-hartzea izan edo ez, horixe zen orain artean bi kirol-erakunde mota horiek bereizteko erabiltzen zen funtsezko irizpidea, eratzearen edo araubide juridikoaren alderdi formalak

alde batera utzita. Lege-bereizketa hori gorabehera, errealitateak erakutsi du hainbat kirol-elkartek ohiko parte-hartzea izan dutela lehiaketa ofizialetan, eta beste hainbat kirol-elkartek, aldiz, ez dutela sekulan parte hartu beren gizarte-xedean bildutako modalitateetako lehiaketa ofizialetan. Horregatik, Dekretu hau egiterakoan bi figura horiek bateratu nahi izan dira, kirol-kluben ezaugarri nagusia kirol modalitate bat edo gehiago sustatzea edo horietan jardutea izan dadin, lehiaketa ofizialetan ohiko parte-hartzea izan edo ez.

Dekretuak arautzen du, bide batez, garrantzi handikoa izanagatik ere indarreko arauan eta autonomiako xedapen gehienetan aipatzen ez den gai bat: kirol-klubetako zuzendarien erantzukizuna. Isiltasun horrek bide eman du etengabeko ziurgabetasun juridikoko egoera gertatzeko, eta, horregatik, xedapen honek erantzukizun-araubide hori argitu nahi du. Hala, kirol-elkarteetako bazkideak ez dira klub horietako zorren erantzule izango. Klubetako gobernuko, administrazioko eta ordezkarietako organoetako kide eta titularrak eta horien izenean eta horiek ordezkatzuz jarduten duten gainerako pertsonak, ordea, erantzun egin beharko dute, klub horien aurrean, klubetako bazkideen aurrean eta hirugarren pertsona eta erakundeen aurrean, dolozko, erruzko eta zabarkeriaren ondoriozko egintzek eragindako kalte eta zorregatik.

Azkenik, aipatzekoa da, halaber, Dekretu berriak askatasun handia ematen diela klubei hauteskundeak antolatzeke. Izan ere, orain indargabetu den Dekretua indarrean egon den urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan erregistratutako 4.000 klub baino gehiagotik oso gutxi izan dira hauteskunde-alorreko indarreko araudia bete dutenak. Horregatik guztiagatik, atal interbentzionista jakin batzuk ezabatu izanarekin bat etorritik, hauteskunde-araubidea ahalik eta gehien sinplifikatu du Dekretuak, eta, hala, klubetako estatutu edo erregelamenduetan bildutako arauak izango dira klubetako hauteskunde-araubidea arautuko dutenak.

Kultura Saila

KULTURA SAILAK 110.000 EURO BIDERATU DITU GIDOIAK SORTZERA

Gaurko bilkuran, Gobernu Kontseiluak 2010. urteko urtealdiari begira gidioen sorkuntzarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duen Kulturako sailburuaren Agindua onartu du, alegia, edozein formatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan idatzitako zinema nahiz telebistarako fikziozkoak, animaziozkoak edota dokumentalak diren gidoiak sortzeko laguntzak emateko araubidea eta deialdia. Deialdi honetan aurreikusitako laguntzetarako diru-kopurua 109.800 euro da. Kopuru hori bi modalitatetan banatuko da.

Aginduaren helburua da 2010 eta 2011 urteetan garatzekoak diren eta edozein formatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan idatzitako zinema nahiz telebistarako fikziozkoak, animaziozkoak edota dokumentalak diren gidoiak sortzeko laguntzak emateko deialdia egitea eta horretarako baldintzak ezartzea. Aginduaren asmoa, beraz, gidioen sorkuntza bultzatzea da. Azken batean, euskal ikus-entzunezkoen industria sendotzearen alde egitea, lehenengo fasean kalitateko gidioen ekoizpena sustatuz, hartara gerora ikus-entzunezko ekoizpenetan mamitu daitezkeenak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren iritziz, gidioen sorkuntza laguntzea aginte publikoen erantzukizuna da, sektore estrategiko bateko produktuen ekoizpena bi ikuspuntutatik dinamizatuz: ikus-entzunezkoan industria, batetik, eta alderdi kulturaletik, bestetik.

Deialdi honetarako izendatutako diru-kopurua 2009ko 80.000 euroetatik aurtengo 109.800 euroetara pasa da. Gehikuntza hori Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzatik bertatik etorri da, Euskadiko ikus-entzunezkoen sorkuntza-lana euskal gazteen artean zabaltzeko asmoa baitu. Kopuru hori bi modalitatetan banatuko da.

1.- Lehenengo modalitatea, hamahiru mila eta hirurehun euroko (13.300,00) sei laguntza, 30 urtez gorako gidoilariantzat (baldintza hori eskabideak aurkezteko azken egunean egiaztatu behar da) edo 30 urtez azpiko gidoilari gazteentzat (baldintza hori eskabideak aurkezteko azken egunean egiaztatu behar da), betiere gidoilari moduan agertzen badira zinema-aretoetan emateko sailkapena duten film luzeren batean. Hiru laguntza euskaraz idatzitako gidoietarako izango dira, eta beste hiru gaztelaniaz idatzitako gidoietarako.

2.- Eta bigarren modalitatea, hamar mila euroko (10.000) hiru laguntza, zinema-aretoetan emateko sailkapena duten film luzeetan gidoilari moduan agertzen ez diren gidoilari gazteek idatzitako gidoietarako. Hiru gidoietatik batek, gutxienez, euskaraz idatzita egon beharko du, eta beste batek, gutxienez, gaztelaniaz.

Oso balorazio positiboa egin dugu gidoiak ekoizteko laguntza-programa honen emaitzen gainean. 2009. urtean 77 eskabide aurkeztu ziren laguntza jasotzeko (2008koak baino 24 gehiago eta 2007koak baino 43 gehiago). Horrenbestez, bi urtetan aurkeztutako proiektuen kopurua 34tik 77ra igo da, alegia, %126ko gorakada izan du.